

ALJERIA. Kabiliako Herri eta Leinu Batzordeak maiatzeko Legebiltzarrerako hauteskundeak boikoteatzen ari dira

Berbereen hizkuntza ofizial bihurtuko dela dio Aljerko gobernuak

Jendarmeria
Kabiliatik ez duela
aterako iragarri du
Bouteflikak

Tamazight-aren eremua

- Berbere hizkuntzaren gune bakartuak
- Berbere hizkuntza nagusi den eremua



Erredakzioa | DONOSTIA

Tamazight berbereen hizkuntza Aljerian hizkuntza ofiziala izango dela iragarri zuen atzo Abdelaziz Bouteflika presidentek herriarrei eginiko hitzaldi batean. Beren hizkuntzaren onarpena da joan zen urteko apiriletik Gobernuaren aurka matxinaturik diren Kabiliako berbereek Bouteflikari eginiko exigentzietako bat. Berbereek maiatzeko Legebiltzarrerako hauteskundeak boikoteatzeko kanpaina aurkeztu eta egun gutxira etorri da Bouteflikaren iragarpena.

«Askatasun osoz eta arraz komentziturik erabaki dut *tamazight*-a Konstituzioan hizkuntza

ofizial gisa sartzea, herria eta nazioaren interesa zerbitzatze-ko asmo soilarekin», esan zuen Aljeriako presidentek telebistan zabalduko hitzaldian.

Arabiera zen, egun arte, ofizialtzat onarturiko hizkuntza bakarra Aljerian.


Arabiera eta islamarekin batera berberetasuna «Aljeriaren nortasunaren osagai» zela gaineratu zuen Bouteflikak. Estatistika ofizialik ez den arren, Aljerian bizi diren *tamazight* hitzunik populazioaren %30 inguru dira.

Joan zen urteko apirilean berbereen matxinada piztu zen iparraldeko Kabilia eskualdean. Aljeriako Poliziak gazte berbere bat atxiloturik zela hil izanak irakinarazi zuen urteetan pairaturiko langabeziaren, zapalkuntzaren, eta indar publikoen ustelkeriaren sutan egosiriko ezinegon. Uztaila arteko hiru hilabeteetan 60 bat hildako eta 2.000 zauritu izan ziren, Gobernuak onarturiko datuen arabera. Matxinadatik sorturiko eta Kabilian egun *de facto* agintzen duten Herri eta Leinuetako Batzordeen —*Artx*— arabera, 107 hildako eta 6.000 zauritu izan ziren.

Iazko urrian berbereen hizkuntza ofiziala bilakatuko zela iragarri zuen Ali Benflis Aljeriako lehen ministroak. Benflisek gaineratu zuenez, *tamazight*-ak ez luke, halere, arabiar hizkuntzaren balio bera izango.

Negoiazioaren aldekoak eta kontrakoak

Telebistan hitzaldia egin aurretik Kabiliako ordezkari talde batekin bildu zen Bouteflika presidentea. Ordezkariek, halere,



Kabiliako Batzordeetako kideak maiatzeko hauteskundeetarako hauteskontziak «Bouteflikari itzultzen».

BOZEN AURKAKO BOIKOTA

Kabilia gabeko hauteskundeak

Aljerian Legebiltzarrerako hauteskundeak egiteko bi hilabete eskas falta direnean, gori-gorian da Kabilian bozei boikota egiteko kanpaina. Tizi Ouzou Kabiliako hiri nagusiko ordezkariak hauteskunde batzordearen egoitzan ziren hauteskontzi guztiak atera zituzten joan zen igandean, «Bouteflikari itzultzeko». Jendaurrean erakutsi zituzten hauteskontziak bozak oztopatzeko erabakia irmoa dela adierazteko. Maiatzaren 30erako deituta diren hauteskun-

deetako txartel ofizialak ere atzeman zituzten ordezkariok.

Kabilian sostengu handia izan ohi duen RCD Demokrazia eta Kulturaren aldeko Batzarra alderdiko ordezkariak adierazi duenez, «Aljerian Kabilia gabe hauteskundeak egitea, herritarrek nazioaren banaketaren aurrean jartzea litzateke». FFS Indar Sozialisten Fronteak bozetara aurkeztuko denetz erabakitzeke duela adierazi du. «Manifestazio publiko oro debekatzen dituen botere totalitario batek ezin ditu hauteskunde askeak antolatu», esan du Txfaa Bouaitxe eldunak. Aljeriak pairatzen duen krisialdia bozek ez dutela konponduko gaineratu du.

ABDELAZIZ BOUTEFLIKA

Aljeriako presidentea

«Askatasun osoz eta arraz komentziturik erabaki dut *tamazight*-a Konstituzioan hizkuntza ofizial gisa sartzea»

Kabilian gutxiengoa diren *elkarriketazale* deiturikoen izenean hitz egin zuten, berbereen beste multzoaren eldunek presidentearen gonbidapenari uko egin baitzioten.

Matxinada mugimenduak 15 puntuko errebindikazio zerrenda osatu zuen iaz eta Kabilian sostengu zabalagoa duten eztabaidaren aurkako taldeok berbereen eskaera zerrenda negoziatzerik ez dagoela aldarrikatzen dute. *Tamazight*-aren ofizialtasuna eskatzeaz gain, *Artx*ek Aljeriako Jendarmeria Kabiliatik joatea, eta 2001eko apirilean hasitako errebolto biktima guztien senitartekoek kalte-ordainak jasotzea exijitzen dute. Errebindakazioak osorik bete arte, maiatzeko egitekoak diren hauteskunde

aurkako boikotak jarraituko duela adierazi dute.

«Estatuaren ordezkari den gorpua delako» Jendarmeria Kabiliatik erretiratzeko eskaera beteko ez zuela baieztatu zuen atzo Bouteflikak hizkuntzaren ofizialtasuna onartuko zuela iragartzeko eginiko hitzaldian.

BANAKETA ENPRESA batek

banatzaileak behar ditu
Gasteizen.

LAN-BALDINTZAK:

- Egunean 3 ordu.
- Goizeko 05:00etatik 08:00etara.
- Astean lau egun.

Ezinbestekoa da autoa izatea
902300223 telefonora deitu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria



IRAGARKIA

Zestoako Udal Batzarrek, 2002ko otsailaren 28an buruturiko saioan, hasiera batez onartu zuen Iraetako IR.R.3 Areari dagokion Ordenazioko Plan Partziala, Zestoako Udalak bertako lurjabeekin elkarlanean sustatutakoa eta Jose M^a Alberdi Alberdi arkitektoak landutakoa.

Espedientea jendaurrean ipintzen da hilabete batez, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epe horretan espedientea ikusgai egongo da Udaleko Idazkaritzan.

Zestoa, 2002ko martxoak 6.
ALKATEAK.